

ANTOLAKUNTZA ETA TEKNOLOGI BARRIAK

48370 BERMEO
BIZKAIA

Erref.: 2020/IDA_DEK0473

JAGOKON SAILARI BARNE KOMUNIKAZIOA

2020/04/01(e)(a)n **2020 - 00000909** zenbakia daukan ALKATETZA DEKRETUA onartu dala jakinarazoten deutsu(e)t:

Xedea

COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, funtsezko zerbitzuak onartzea. 2020ko martxoaren 30eko 20200000873 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren zuzenketa.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko martxoaren 30eko 20200000873 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez, COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, funtsezko zerbitzuak onartzea erabaki zen.

Bigarrena: Aipatutako dekretuan akatsak antzeman dira eta zuzendu egin behar dira.

Argudioak

Bakarra: Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 109.2 artikulua, zera jasotzen du:

“Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos”.

Beraz, kontuan izanda egiteko akatsa dagoela, artikulua horri jarraiki, akatsa ofizios zuzendu daiteke.

Ondorioz, funtsezko zerbitzuen zerrendan, “Erregistro Orokorra - Herritarren arreta telematikoa (telelanaren bitartez)” jartzen duen lekuan, “Erregistro Orokorra - Herritarren arreta telematikoa” jarri beharko litzateke, eta “Udal Azoka” gehitu.

Erabakia

Hori guztia dela eta, honakoa proposatzen dut:

BAKARRA: 2020ko martxoaren 30eko 20200000873 zenbakidun Alkatetza Dekretua zuzentzea, funtsezko zerbitzuen zerrendan, “Erregistro Orokorra - Herritarren arreta telematikoa (telelanaren bitartez)” jartzen duen lekuan, “Erregistro Orokorra - Herritarren arreta telematikoa” jarrita, eta “Udal Azoka” gehituta.

Hori horrela, 2020ko martxoaren 30eko 20200000873 zenbakidun Alkatetza Dekretua honela geratzen da:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003FD5A00O3O7L1W0F6M9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 01/04/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/04/2020
17:24:39

DOCUMENTO: 20200261466

Fecha: 01/04/2020
Lekua: Bermeo
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



“Xedea

Lehenengoa: COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, funtsezko zerbitzuak onartzea. 2020ko martxoaren 30eko 2020000873 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren zuzenketa.

COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua eman zuen, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zen.

Laugarrena: COVID-19aren kontrako borrokan herritarren mugikortasuna murrizteko helburuarekin, funtsezko zerbitzuetatik kanpo besteen kontura lan egiten duten langileen ordaindutako baimen errekupegarria arautzen duen 10/2020 Errege Dekretu-legea eman zen martxoaren 29an.

Argudioak

Lehenengoa: 10/2020 Errege Dekretu-legean xedatutakoa eta langileen osasuna bermatzeko, beharrezkoa da funtsezko zerbitzuak onartzea.

Bigarrena: Funtsezko zerbitzuak ez diren langileen kasuan, telelana egiteko aukera dagoenean, langileek telelan bidez egingo dute lana, eta horretarako baliabideak erraztuko dira.

Hirugarrena: Telelana bermatu ezin den kasuetan, langileak ordaindutako baimen errekupegarriaren egoerara pasatuko dira martxoaren 30etik eta apirilaren 12ra bitartean.

Laugarrena: Orduak berreskuratzeko modua, negoziaketa kolektiboa egin ondoren ezarriko da.

Bosgarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dauzan 7/1985 Legearen 21.1.m) artikulua arabera, alkateari jagoko, beti be Osoko Bilkureari erabagi horren barri emonda egiten dan lehenengoko batzarrean.

Erabakia

Hori guztia dela eta, honakoa erabaki dut:

LEHENENGOA: COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, funtsezko zerbitzu legez honeek onartzea:

- Idazkaritza (telelanaren bitartez)
- Kontuhartzailatza (telelanaren bitartez)
- Diruzaintza (telelanaren bitartez)
- Erregistro Orokorra - Herritarren arreta telematikoa
- Zerbitzu informatikoak (telelanaren bitartez)
- Unitate administratiboetako arduradunak.
- Udaltzaingoa
- Garbitasun zerbitzuak (eraikinak, kale garbiketa eta ureztatzea)
- Kaleko oinarrizko mantenua eta premiazko konponketa zerbitzuak
- Hondakinen batze zerbitzuak
- Hilerriko lurperatze zerbitzuak eta ehorzte zerbitzuak.
- Udal Azoka



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003FD5A00O3O7L1W0F6M9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 01/04/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/04/2020
17:24:39

DOCUMENTO: 20200261466

Datea: 01/04/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Argiteria publikoa
- Ur hornidura
- Gizarte Ongizateko oinarrizko zerbitzuak
- Indarkeria matxistari aurre egiteko zerbitzuak
- Zaharren egoitza
- Etxez etzeko zerbitzua
- Babes zibila.
- Ura eta berau bermatzeko zerbitzua.
- Argiteria publikoa.
- Obra zerbitzuak.
- Animaliak artatu eta babesteko zerbitzuak

BIGARRENA: Modu presentzialean egikarrituko diren oinarrizko zerbitzuetan segurtasun eta osasun neurri guztiak errespetatu behar dira, eta horretarako, beharrezko baliabideak eskuragarri jarriko dira.

HIRUGARRENA: Prebentzio teknikariari, Zerbitzu Saileko teknikariari eta Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendariari beharrezko neurri guztiak hartzeko agintzea.

LAUGARRENA: Telematikoki lan egiteko aukera duten lanpostu guztiak telelanaren bitartez lan egiteko agindua ematea.

HIRUGARRENA: Gainerako lanpostuei ordaindutako baimena eta errekuagarria emango zaie martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean, biak barne. Horretarako, Sailburuei agintzea telelana egin ezin duten eta ezinbestekoak ez diren lanpostuak identifikatzea.

Orduak errekuaratzeko modua, negoziaketa kolektiboa egin ondoren ezarriko da, beti ere 10/2020 Errege Dekretu-Legean xedatutakoaren barnean.

LAUGARRENA: Erabaki hau sailburuei, langileei eta sindikatuei jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

BOSGARRENA: Erabaki hau Bermeoko Udalaren web gunean argitaratzea.

SEIGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea”

Proposatzen duguna, legean oinarritutako beste edozein txosten eta proposamenen kalterik gabe.

Honen guztiaren barri emoten deutsu(e)t jagokozan ondorioetarako.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003FD5A00O3O7L1W0F6M9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 01/04/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/04/2020
17:24:39

DOCUMENTO: 20200261466

Datea: 01/04/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

